

# AGUR BIZIAN GORAKO NAGUSI ADISKIDEOK

*Doinua: "Aita Jainkoak egin banindu*



**1**

Agur Nagusi adiskideok,  
aitita eta amama!  
beso zabalik gatoz gaur pozik  
maitasunez zuengana.  
Jubilatuta gagozan arren  
dana ez da jan-edana,  
gaurko munduan badogu geuk be  
zer egin ta zer esana.

**2**

Kontu haundiaz ez bagabiltza  
hor goaz laster zokora,  
penagarria alperrik galdu  
behar hainbeste denpora...  
Holantxe jazo ez dedin hemen  
gatoz gaur zuen ondora,  
aitita-amamak zuoi deitzera  
dator gaur Bizian Gora.

**3**

Hainbeste neke eta arduraz  
zaharrak dagoz nekatuak,  
baina zintzoak, zahar eta guzti,  
beti dau beharlekua.  
Bizitzan zehar, Jesus Jaunagaz  
daukagu maitemindua,  
famili baten zein maitagarria  
dan holango testigua!

**4**

Gaur pozik dator Bizian Gora  
ez da, gero, propaganda,  
urte barrian egin jatzuen  
dei barri on bat izan da.  
Gure munduko karrera martxan  
hau da azkenengo txanda,  
goazen aititak, goazen amamak,  
"orduak jo dau" esanda.

**5**

Zuen antzeko aitita-amamak  
ta euskaldunak gainera,  
gure albiste zoragarri hau  
gatoz zuoi emotera:  
Bizian Gora guztiontzat da  
jubilauontzat batera,  
eta pozarren bedeinkatzera  
betor gure Jesus Bera.

**6**

Gure dotrina beti izan da  
Jesusen Ebanjelio,  
Haren aurrean atxaki danak  
ezer ez dabe balio.  
Guztiok laster emon beharra  
beste danari adio,  
guk zaharrok a zer maisua dogun  
Aita Santu Bergoglio!

A.Martzel